

Antxon Larrañaga. Goian bego

Euzko Gaztedi, 1968-04/05: 1.

Uzte gabe il zaigun gizon au euskotarren panteoiean betiko oeratu genduanean, makiña bat lagunek agur egin genion; gutxitan izandu da gure arteko lur-emateetan orrenbeste jende.

Ta ondo merezia zuan Antton'ek azken omen au.

Gaztetandik sartu zan Antton Larrañaga aberri lanetan. Eusko-Ekintza edo Acción Vasca'ko sortzalleetako bat izan zan. Gizarte artu-emanetarako biotz aundikoa izanik, lagun-urkoarentzat errespeto aundikoa zanez, berezko lagunarte on-onekoa zan ezkerro, Donostia'ko politika arazoak eta gizarte lan guziak bere bear aundia izan zuten, eta baita berak biotz onez eta maitasunez bere erantzun egikorra ta eginkorra eman ere. Erori zitzaion Antton'eri ere goitik bera, danoidi bezela, dalako guda ikaragarri ura, ta ez zuan ekaitz arek Antton lo arrapatu. Lenengo egunetatik sartu zan berak eratzten lagundu zuan "Eusko-Indarra" batalloiean, eta gero, gauzak lasaiago gertatzen asi ziranean. Joxe Ramón Santamaria'k agintzen zuan "Askatasuna" batalloiko kapitan egin zuten, eta Peña Lemona'ko suak alkarrekin betiko lotutako anaitasunean geratu ziran ordu ezkerro.

Gero, itxasotik onuntzako gudan, atzerriko burrukan ere, ez zan gizona bañera atzera geratu. Emen egin ditu Antton zanak makiña bat lan: "Socorros Mutuos" sortzeko, ta orain arte iraun asteko lanak batez ere: lana utzi ta gaixo bat ikustera noiz nai joateko gertu izaten zan; norbait iltzen zanean egin bear izaten diran orrenbeste eraketa konpontzeko ere bai; danerako zegoan gertu Antton, iñor ez bezela. Bai, ezaguna genduan lan oietarako Antton Larrañaga'k zuan gaitasuna. Gero, Eusko-Etxea'ren langille aurren-aurrenetakoa izan genduan; bai zuzendari bezela, baita zuzendariak eskatzen zioten edozer lanetan alegintzeko ere. Ta beti bere lekuan eta garaian egoten ba zekin; orduak zituan gure lagun on onek bere laguntzaille onenak eratzaille onak izaten dituzten bezela, ta ordutik kanpora zebiltzenak an eukitzen zuten Antton zai, bere erlojua zorrotz erakutziaz.

Bai. Eusko-Etxea'ri joan zaio bere betiko, sortuezkerozko, laguna ta babes, ta bere adiskide giñan guziori joan zaigu gure lagun maitea; danen aurretik, bere emazte Auxtiña'ri (betiko abertzale piñ eta langilleari) ta alaba Bakartxo'ri palta zaie betiko ain bere barruko izan duten, eta oraindikan betiko izango duten, gizona; bijoakie bie gure asmorik miñena.

An utzi genduan, miñez, Antton, Caracas'eko euskotarren panteoiean, orain dala gutxi galdu genituan (eta bere lagun-lagunak ziran) Aretxabaleta'tar Luzio ta Miren'en albo-alboan.

Zeruan ikusiko ziran alkar onezkero.

Alaxe.